


ZARR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

195n. zenbakia / jorrailla/aprilla
1995



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



LERIDA: ANTXIÑA EUSKALDUNEN ABIA

SALLOBANTE'ren ELEIZEA
ERROMANIKU-TANKERAKOA
ELEIZEA XII GIZALDIKOA
TORREA XV GIZALDIKOA

EUSKAL ASTEA

tezpada, "Gora Euskadi askatuta" ta "Euskadiko Ezkerra" esan naiago dabe. Noski, onan indar andiagoa dauko-edo...

Astarloa durangarrak Arana'tar Sabin jaio baiño ia gizaldibete leenago jašo ebazan "BustinDUI, buztinDI", "azurDIU (osario)", loiDI (barrizal)", "zingiraDI (pantanal)" erako berbok: dakuskuzueenez, landareakaz zerikusirik ez daukeenak.

Orain barriz bada atzizkien erabillera okerrik. Batuako JUNTAGAILU berbak be (nexo, conjunción) berebiziko triskantza daragio euskereari, "juntatu" erdera utsa, ta -GALLU atzizkia "tresna, abasa, lanabesa" dozue-ta.

Orra gaur non-nai -IKO atzizkia, onelan jarraitu ezker aragoitarrak dirudikegu. Erdal itza aukeratua-gaitik, euskal senari obeto dautse oek eraok: POLITIKA-ARAZOA, "arazo politikoa" barik. EKOOMIALKARTEA, "Elkarte ekonomikoa" bearrean, FILOSOFI-AZTERKETA, "azterketa filosofikoa" orde.

ZAARKITZAK (ARKAISMOAK)

Izparri egokiak bultzatu bearrean garean legetxe, galduta zein erdi-galdutan daukoguzan beredin itz oster be indarbarritu egin bear geunkez. Orra Azkue ren iztegian zaarmindutako berbatzat artutako batzunenbatzuk: AIZTO (ganibeta, labana), ARNARI (fruitu, ez "igali"-fruta), ATZE (zugaitza, zugatza, zuhamua), ISUN (multa, diru-zigorra), DOMU (diru-kapitala), GARATZ (negozioa), OSKI (zapata, oiñetakoa), ENDA (abenda, arraza, askazia), etabar luzea. Berak iñoanez "beste jatorragoko itzen batek ordezkatu ez ba'dauz, ezinbestekoa da izkelki orretatixe izkuntza osora zalaltzea". Antxiña, berba oneik jakiña edatuago egozan. EPAIL (marzo) berbearen gorabeeran, ara or Kintana'k diñoana:

"Forma del nombre OPEIL, que aparece en los refranes vizcafnos de 1596, y sin uso popular, masificada caprichosamente por los puristas; vide "Martxo". Adierazotako au Pedro Astarloa'k guzurreztuten dau, XVIII'gn mendean EPAIL itza ezaguna zala bai-diño. Gaiñera, OPEILLA ez da "epailla" ren bardiña, kidekoa, "jorrailla" baiño. "Epailla" berez "el mes de la tala o corte" litzake, "epagi", "epai" ta "illa"tik eratorria alegia. Euskeraz badoguz illak izendatzeko amaika itz jator:

Enero: URTARRIL, LOIL, ILBELTZ (Gipuzko'n) / Febrero: OTSAIL, ZEZEIL (Bizkaia'n) / Marzo: EPAILLA, MARTXOA, MARTIA (Bizk) / Abril: JORRAILLA, ABEREILLA (Astarloa'k) / Mayo: LOREILLA, ORRILLA, OSTAROA (Iparraldean) / Junio: GARAGARRILLA (Gip), EKAINA, EKAINILLA / Julio: UZTA(ILLA) / Agosto: AGORRILLA, DAGONILLA / Septiembre: BURUILLA (Ipar),

AGORRA, IRAILLA / Octubre: URRILLA / Noviembre: AZAROA, AZILLA, ZEMENDIA (Bizk) / Diciembre: LOTAZILLA, GABONILLA (obe litzake ABENDU "adviento" aditzen emoteko erabiltea). Bizkaia'n GARAGARRILLA uztailari esaten dautsoe. ekainilla esateko BAGILLA erabili daroe.

Antxiñean arruntak eta entzunak zirean berba eurrez atzenduta dagoz gaur, eta euskaldunon egitekoa da oneik danok zabalduetea. IZKIOTA, esaterako, duala bi eunki-edo eguzki beroari esaten jakon, eguzkiak beroren joteren ebanean; zabalduz, "solsticio de verano" adierazoteko balio leigu.

Beste batzuetan, euskalki baten edo bestean galduta dagoan berbea, beste izkelgi baten zein bestetuetan erabilten dabe, ta erderazko itza onartu barik, bear-bearezko eginkizuna geunke berba aaztutxe a bultzatzea; ala nola Naparro'ko zenbait erritan bizi dan SARRAKIO elea, "terrore" esan gabetanik. Onegaitik, "terrorezko filme", "terrorista", "terrorismo" baiño askoz be egokiagoak, oneixek geunkez: SARRAKIO-IKUSMINTZAK (SARRAKIO-FILMAK), SARRAKIO (KERI) ZALEA, ta SARRAKIOZALEKERIA (SARRAKIOKERIA).

Euskeraz badoguz "mamu", "mamorro". "zomorro" lango berbak. baiña zein litzake erderazko "monstruo" aditzen emoteko garbiena? Norbaitzuk orain an-emenka "monstruo" ("monstruo" be bai) darabile, ta erderazko bi orrean artean erabagi naiean jabilguzan bitartean, orra or zubererazko APOTORO itz zeatza, Iakakortxarena'tar Txomin'ek erabillia, ta geu be onetsi bearrean gagozana. Bizkai'ko OZKIRRI dalakoa, zergaitik indartu ez besteok itzetik ortzera jaulkitzen dogun "fresku", "presku" trakets eta markets orren tokian?

BETIDANIK ERABILLI DAROAGUZON BERBOK

Ara ulertu-eziñeko beste akats negargarria, zoritxareez oso zabaldua. Euskeraz esaten eta idazten genduzan berba ugari, geuk erdelitzez ordezkatu. Adibide zeatzak emon dagitsueguzan:

— Greba: LAN-UZTEA, LAN-OPOR entzunak zireanez, gaur prantzerazko "greba" berbea zuzperzteari, gaur egun egiten daben bezalaxe, zentzunik galkeri galanta deritxagu. GELTOKI esan bearrean "estazio" (ESP) / "gara" (FR), ta GARAGARDOA'ren orde "zerbeza" (ESP) / "bierra" (FR) esatea modukoa a-ta. Euskaltzaindia'k berak be, bitariko-maaste (anbiguidade) itzelera garamazkean jobera onen aurka mintzatu ta gero, BULEGO (idazkela, langela), OSPITALE (gaixoetxea, eritetxea, gaixotegia), ta ASANBLADA itzurako berbok indaru egin dauz: "Asanblada" dalako ori euskeraz sofisma utsa izaki; englanderaz "to assemble" (alkartu), ta prantzeraz "ensemble"

ARDIAK BEE! OTSOAK ULU!

(1º SARIA)

Antxin antxinatean.
Auña mendietako bi aldeetan,
ardi talde zuri bat bizi zan,
bake bakean,
iñori kalterik egin barik, anaitasun betean.

Udako egun beroetan,
goiz-goizetik eguzkia agertu orduko,
ardiak bee! bee! kantu alaietan
joaten ziran larrara, bedar samurra jatera.

Gero eguerdian,
eguzki beroak atxak kiskaltzen ebazanean,
ardiak pagopeetan, erdi lotan,
itzunda egoten ziran gozoro ausnarrean,
ipar aize fiñak pago orrietan fir! fir!
laztan egiten eban biartean...

Bai, bake eta zoriontsu zala ardi-erriko bizitza.
Udan beroa. Neguan otza.
Baina beti alai eta bakean biotza...

Baina,
egun batean, zoritxarrean,
atzeritik, otso-erritik,
basa-txakur antzeko abere batzuk,
ardi-narruz jantzita,
ardi-errira etorri ziran,
apal-apal, otzan-otzan,
berbak bigun, asmoak ilun,
ardiei esatera:
"Ardi maiteok,
ain biotz oneko zarienok,
guk zuon lagun izan gura geunke.
Zuokin bat egin, zuokin lan egin,
eta zuon lurraldean betiko bizi.
Orretarako gatoz zuen baimen eske".
Eta ardiak, iñozoak, maltzurkeri bakotk,
otsoei sinistu, eta "baietz" erantzun eutsien...
Ba egoala ardi-errian danontzat lekurik,
eta etorteko bildur barik...

Baina otsoak ez ziran bakarka etorri.
Otso bakotxak atzeritik

bere etxeko, lagun eta ezagunak ebazan ekarri,
gaur bat, biar sei, etzi amabi...
Bata bestearen atzean, erreskadan.
Eta onan ardi-erria apur apurka otsoz bete zan...
Eta ardiak, kokoloak, burubako alangoak!
ardi-narruz jantzitako otsoen lagun egin ziran,
otsoen asmoak maitasunezkoak ziralakoan...

Baina,
ardiak bee! bee!
Otsoak ulu! ulu!
Ez eben alkar ulertzen...

Orduan otsoak, ardi-narruz jantzitakoak,
ardiei esan eutsien:
Zer da zuon izketa bee! bee! basati, zatar, ganoraba-
ko ori?
Txakurrak ausika emoten dozue!
Gure izkuntza ulu! ulu! bai dala ederra, zabala,
landu eta inperiala!
Guk ulu! egin ezkerro Ameriketean ere ulertzen
dabe!...

Eta ardiak, iñozoak,
atzeritarren izkuntza ikastea ere ona izango zala-
eta...
otsoen esana ontzat artu eben.
Otsoak ardiak zaintzen!!!

* * *

Eta otsoak, maltzurak,
atzeritik, otso-erritik,
ulu! bakarrrik egiten ekien eundaka maisu
ekarri ebezan ardi-errira,
ardikumeei ulu! egiten irakastera...
Eta ardi-erriko eskoletan,
bee! bee! egiten eben ardikumeak, gaixoak,
gogor ziran zigortuak:
edo asto-belarriak buruan umeei lotsagarri jarrita,
edo eskolaren azkenean eraztuna eukan umea, erru-
karria,
maisuk ugalaz astinduta...

AMAIRU URTE GEROAGO (II)

EZIKETA TA EUSKEREA

Gai oneri buruz, ZER aldizkari onetako 192'gn. zenbakian argitaratu gendun idaz-lanean, Jaurlaritza barria aukatzeko alderdi arteko izketak ondiño amaitu barik geratu ziran ezker, emen nozue barriro orduan egindako iruzkiñai jarraituz.

Españar alderdi guztiak, PSE-EE izan ezik, Jaurlaritzan sartzeari uko egin eutsoenez gero, berak leporatu bear izan eban euskera-arloko zeregiña, oi dan bezela baina, bereziki aspaldi ontan.

Orretarako Ezkuntza-Saila eskuratzea bide onena izanik. Jauregi jaunak buru-belarri ta oldarki guzurrezko adierazpideak~maltzurkeriz eta azpi-jokoz erabilliz, lanari ekin eutson.

Borroka gogorra ta luzea, gora-bera aundiaz, jokatu bear izan zan. Larri-aldi batzuetan. Jaurlaritza irukoitza eratu barik, artu-emonak etengo ete ziran-edo. kezkatu egon giñan. Baiña abertzaleak, Ardanza jauna buru dala, gaia tinco aldeztu ondoren, Ezkuntza Saila ta Izkuntza Politikarako Idazkaritza alderdi abertzalen eskuetan geratu ziran.

Euskerea benetan lagundu ta indartu al-izateko, izkuntzari dagokion eginbide guztiak eskuratzea bear-bearrezkoa da.

EUSKALDUNTZEN

Juan dan legehiltzar-aldian Buesa jaunak jarritako eragozpen eta oztopoak dirala-ta, EAJ eta EA alderdiak ondo ekien laguntza ori ezinbestekoa zala. ta kemenez bide ortatik ekin eben asmoa lortu arte.

Aurreko idaz-lanean. euskerari buruz arazo bererizko bat aitatu genduan: Administrazioko 646 langillei jarritako euskalduntze-mailla bear dan epean lortu ez dabenak. ain zuzen be.

Agian. Jaurlaritza barriak datorren ekainillara arte atzeratu ei-dau arazoari dagokion erabakia artzeko.

Arazo oneri buruz eta bere inguruan alderdien jokaera gogoan artu ezker, talde bi agertzen dira aurrez-aurre: abertzaleak eta espainarrak: EAJ eta EA alde batetik eta bestetik PSE-EE eta Jaurlaritzatik kanpo geratu diran alderdiak.

ARERIOAK

Gai onetan PP'ren jarduera oso ezaguna dogu. eta UA'rena nabari da euskerarekiko gorroto utsa besterik ez dala. Ezker Batua (EB) Eusko Legebiltzarrean talde barriari buruz, aurki, beste espainar alderdi bezela jokatu daua uste dogu: beti Madril'era begira Euskaldi-ren arazoei jaramonik egin barik.

Auzi oneri buruz itz egitean, abertzale ez diran alderdien joera aurreretik dakigu nolakoa izango dan. Euskalduntzeko Plangintzari zuzenki aurka egitea, batez be Eusko Legebiltzarrean bertan, laidogarri ta onartu-eziñekoa izango litzakela-ta, maltzurkeri ta azpijoko bideak artuko dabez, oztopoak egiñ-ala jarri ta al dan gitxien lagundu.

Egundo ez da ikusi euren kabuz antolatutako ezelango gertakizun edo agintzarik, gure izkuntzari gorazarre edo ongaria izango leitekenik. Ajola-gabetasun utsean bizi dira, euskerea izango ez ba'litz, eta askotan, batez be UA'ren jakabidea ikusirik, gorrotoa agertzen dala emoten dau.

LAGUNAK ETA ESKUBIDEAK

Abadagune onetan, alderdi abertzaleak ezkuntza ta euskalduntze egitamuaren arduradunak izanik, berenez eta bene-benetan. euskerearentzat bear-bearrezkoak diran laguntzak, agirian jarri bear leukiez; eta orain dabezan eskubideak erabilliz, luzapide barik, premiñaz, euskerearen bultzakada bat sort-erazi ta jarraitu.

Jokabide au alderdikeri bat bezala ez leiteke artu bear, laterriaren legeak betetzen zuzenbidea egiñez baiño. Ez dogu aztu bear arrotz laterri batera lotuta gagozala ta. bertan dagozan legeak, guretzat betetzea naitaezkoa dala. Baiña onezaz gaiñera, baita kontuan artu bear dogu euskerea, gure Euskal Errian, gaztelera besteko ofizial edo eginbidezkoa dan ezker, eskubideak be ber-berak izan bear dirala.

AURRERA

Len aitatu dogun 646 langillen arazoari buruz erabagitzean. egoki izango litzake len esandako laterri barruko legeak zeatz-meatz agert-erazi ta erabilli, arerioei ezelako eragozpenik jartzeko aukera emon barik.

Arazo au beingoan eta sustraitik erahagi ez eta geroko itxiko ba'litz, oso arriskutsu izango litzake.

Uts egite onetatik Euskalduntze Plangintzaren aurkako agerkunderen bat sortu ete leiteken-edo burura etorri jaku. Ez gara gomutatzen nun, baiña nunbaiten irakurri izan dogu "izkuntz-intsumisio", alako edo antzeko adierazpena.

Darabilgun gai onetan urreratzen jakun eztabaidan. etorkizunari begira ondore aundiak izan leitekez. Aurki, alderdi espainarrak euskerearen zabalkunde bidean guztitariko oztopoak jarriko dabez. Au dala-ta. abertzaleak euskerea dagon larri-aldian ikusirik, erakutsi beariko dabe, buru-belarri lana egiñaz, beren zeregin berarizko eta garrantzietariko bat, aberriaren izkuntza aldezte dala.

ALKARRIZKETAN

ASMOA

Aspaldiko urteetan gauza bi daukaguz euskaldunok buruan eta biotzean: Erriaren askatasun osoa lortzea eta izukeria edo gogorkeria alboretzea.

Euskalerrian askatasuna gogoratzen dogunean, argi daukagu azken-muga: Euskalerrri osoa, Naparroa ta Iparraldea barru dirala, bere buruaren jabe izatea, erriak nai izan ezkeru laterria sortzen dala edo erriak bestera nai izan ezkeru, beste laterri baten barruan. Elburu ori lortzeko artu bear doguzan bideak aztertu ezkeru, eritxiak asko banatuko litzakez.

Eta izukeria edo gogorkeria gogoratzen ba'dogu, eritxiak antzera banatzen dira. Geienok ez dogu nai elburu ori izukeriaren bidez lortzerik. Gorpuen gaiñean eregitako askatasuna bildurgarria litzake. Baiña Joka-bide orreri epaiketa egiten jakonean, eritxiak banatu egiten dira: Batzuk oraintxe izkilluak iztea eskatzen dabe, beste batzuk, lenago, alkar-izketa nai dabe.

Esan-bearrik be ez dago, euskaldunak ez diran alderdi politikuen artean, geienak, oiñarria bera ukatzen dabela: Oneintzat Euskalerrriak ez dauka bere buruaren jabe izateko eskubiderik, edo ba-da bere buruaren jabe Araudiaren muga-barruan.

Giroa orretan dala, Elkarri k alkar-izketara deia egin dau eta beingoan alderdiak zati bitan banatu dira: Batzuk, bai; beste batzuk ez, izukeriaren aldekoak bide ori itzi arte. Berez alkar-izketarako asmoa ona da, asi baiño lenago ezelako baldintzarik ez dagoanean.

ELBURUAK

Zer da lortu nai dana?

Izukeriaren azkena, guztiok nai dogun gauzea.

Baiña zelan eldu elburu orretara? Emen barriri banakuntza.

Batzuk, lenengo izkilluak itzi dagiezela eta gero egingo dogu berba. Ori diño alderdi España'tar diran Gizarte-Zaleak eta Erri-Alderdiak (PSOE ta PP). Onetan eta onetan bakarrik datoz batera.

Itaun bat egin geinke emen: Zer galtzen da alkarraz berba egiñaz, aurretiaz mugarik jarten ez ba'da? Beti izango dau bakoitzak ezetza esateko aukerea! Eta, beste alde batetik, zeozelako bateratzea lortuko ba'litz, ondorena pozgarria litzake, gizon batzuren ilketa, bear ba'da, alboratuko geunke. Egia esan, gauza gatxa litza-

ke bateratzea lortzea, baiña lortzen ez ba'da be, lengotan gengokez eta lortuko ba'litz, benetan gauza zoragarria!

ONDORENAK

Amaitu da Bilbao'n izan dan alkar-izketa au eta agertu be bai azken-erabagiak: Motelak dira, ez da gauza aundirik aurreratu, baiña ez da aurrerapen txikia alkartu izatea eta arazoai aurpegia emon izatea bera.

Eta au lenengo batzarra izan da, oiñarri bat. Ez dakigu geroko batzarretan bateratzea noraiño eldu leiten.

Batzar onetara urreratu ez diranak euren ezetzean jarraitzen dabe, baiña geroago baietza emoteko itxaropena be ez dabe ukatzen, Gizarte-Zaleak beintzat. Eta Gizarte-Zaleak baietza emongo ba'lebe, Erri Alderdiak ezeetza emongo leukela esan lei, alderdi bi oneik dagozan egoeran dagozelako.

Ete dago ba itxaropenik? Naiz izukeria alboratzeko naiz Euskalerrriaren buru-jabetza lortzeko ete dago oiñarririk? Izukeria amaitzea ez da gauza erreza izango baiña buru-jabetza eskuratzea gitxiago. Buru-Jabetza lortzea frutua ba'da, oraindiño negu gogorrean gagoz eta lorak ez dira agertu.

Baiña ekin egin bear dogu, eziña dirudiana, ekiñaz, egiña biurtu daiten. Euskaldunak ba-daukagu buru-gogorak garalako entzutea, eta onetan bai olakoak garala agertu bear dogula. Ez dauke ba, erri guztiak buru-jabetzarako eskubidea, Laterri-Arteko Eskubide-Agiriak diñoenez? Eta guztiak ba'dauke eskubide ori, guk zergaitik ez? Ametsik biziena, Euskalerrri osoa, goikoa ta bekoa, Naparroa'gaz beatera, bere buruaren jabe dala ezagutzeko ames bizia da.



rra-marido), GOTZON (aingeru ona), IDATZI, IDAZKORTZA (idazteko lumea), IKASTOLA, IKUR ("ikurriña" bai esaten dabe, baiña "ikur" orde, "zeinu" ta antzekoak diñoskuez), IKURRIN (ikurtoiala), IKURTITZA, IZPARRINGIA ("egunkaria", "eguneroko" lez, "diario" litzake), IRASI (sortarazo, sortu), IZKI, IZKORA, IZBERA (marea-gora, marea-beera, IZ antxiña "itxaso" bai-zan; ikusi IZurde IZotz, IZpazter), LATERRI, LUDI, NESKUTS, OBEN, ORLEGI (betidaniko "musker", "oriurdiña", berau Azkue'ren iztegian ageri dalarik, baiña zergatik orain beti "berde" erabili?), SENDI, UGAZTUN (mamifero), UGUTZ, ZAINDARI (patroia), ZORIONDU...

Berbaok danok zearo onargarri jakuz; auetariko bazuek adierazpentxu bat be merezi dabe, ala nola:

AUTESKUNDEAK zabaldu ta nagusitu ba' jaku "votaciones" adierazoteko, zer dala-ta ez "bozketa, botu" bearrean "autarki"? Euskeraz "dependitu" itza sekula ez ba' da, zertan "independentzia" jaulki?

Aztertu daigun bada beste berbeteetan jazoten dana:

ESPAÑERAZ: depender.....independencia
 PRANTZERAZ: dépendre
 INGLERAZ: to depend.....independence
 ERRUSIERAZ: зависитнезависимост
 DOITXERAZ: abhaengen.....unabhaengigkeit

Ikusten dogunez, "depender" aditzak emoteko latíña erabilten ez daben izkuntzek, berezko itz jatorrak sortu ditue. Euskeraz "eso depende de ti" "ori zeure mende dago" esaten dogunez, inpedencia "mendekotasunikeza" litzake, edo-ta AZKATSUNA (askatasun-etik bereiztuteko), JAREITASUNA; LEGE-ZAARRA (lagi-zarra) ez da "foru" berbearen bardíña, legeak-eta sortuteko aalmena baizik, azkatasuna beraz; BURU-JABETZA "soberanía" da.

LATERRI berbea LAGI ERI leiteke (lagi = Ieje), "GI", atzizkiakaz, sari "T" biurtu bai-daroagu; LATA etxe baten azurtzari esaten jakon, etxeari zut eutsiarazoten dautsana, alegia; "estadu" aditzen emoteko errusierazko berba bat "dirzhava" dozue, ta au be "dirzhatt" aditztik dator, eutsi esan gura dauana. Onekin ez dot esan gura euskeraea errusieratik datorrenik edo alderantziz, bai orratio adigai (concepto) bat adierazoteko, izkuntzek batzutan bide bardíñak asmetan dabezala.

"Birjiña" berba zabalduxa erabat gaitzetsi barik, NESKUTS (neska utsa, doncella, chica pura) ez dago txarto; doitzera "birjiña" JUNGFRAU díño, "neskagaztea" itzez itz. OBEN berbearen gorabeeran, "euskarra batuko" iztegiek dirauskunez, "culpa" da, baiña garbizale egi diranek "pecado" esangurea emon omen dautsoe; orain berba au ez dogu beñere entzuten, beti "errua" ta "bekatua" esaka dabilz-eta; beraz, "oben"

berbea ez zerurako ez lurrerako, alegia ezertako balio ez dauan mintzoa legetxe geratu jaku.

EUZKO itzaren bearra, batuzaleek beti goraitatzen daben Mitxelena zanak be adiarazo eban, EUSKAL (vascófono) zuztarretik bereiztuteko. Olan, Gabriel Celaya (G.B.) euskal elerti edo literaturan barik, euzko elertian sartuko genduke. Ots, euskaldun ez diran euzkotar eurrez dagoz, eta era berean, euzkotar ez diran euskaldunak be bai. Itz ori irazan (sortu) ebanak Z' gaz idatzi eban, bere eskubiderik ez zanpatuteko, geu bere Z'gaz idazteko bearrean gintzakez. Errusieraz eta doitzera be antzeko zerbait gertatzen da, "Rossiskiy" ta "Bundes-" "euzko" zentzuan erabilten dabe-ta; EUZKO Jaurlaritza legetxe, an bere BUNDESregierung díño, ta ez "Deutsche Regierung"; errusiarrek "Errusiar Pederaziñoa" (russkaia federatzia) esan barik, ERRUSI-Pederaziñoa esaten dabe, ROSSISKAIA Federatzia alegia. Beraz nor ete da "garbizale"?

Emen ordea, badogu an-emenka "Euskal Gobernu" esanaren esanez sorgortuten gaituanik. "Euskal kirolak" eta olakoak bai erabilten doguz, aspaldidanik baidatorkuz, garai areitan Erri txea geienbat euskalduna zan-eta (euskeraz mintzatzen zala, alegia).

"Euzko" ez da ordea antxiñako omen dan "basko" dalakoaren kidea, karakoa; "Euzko" bakar-bakarrik Euzkadi edo Euskalerriari dagokiona dozue, ta "basko" ostera euzko ta euskal gauzeri (izkuntzari, ekanduai) muxin egiten dautsena da.

EUZKADI itz ezagun eta zabalduari be askotxok barritiz edo neologismo akastuna (neologismo incorrecto) derizkieoe. -DI atzizkiak orra Kintana jaunak zer díñoskun:

"En nuestra ignorancia, no hemos conseguido averiguar a qué especies botánicas pertenecen las raíces de los especímenes GAZTEDEI, LAGUNDI, ABESTI y otros vegetales tan devotamente cultivados por algunos".

-DI atzizkia aldiz, ez dozue landareentzat bakarrik. Onatx bestela Ataun'go LeizaDI leitzazuloo (lezezuloo), KortaDI, BerriDI ta LoiDI abizenak... Badirudi LEGEDI ta ARAUDI berbok be Arana ta Goiri'tar Sabin jaio baiño leen erabilten ebezala. ARAUTEGI itzak ez bai-dau leegen multsorik adierazoten, legeak pillatuta dagozan tokia baiño (liburutegi bat izan leiteke, alegia). Euskerea garapen-izkuntza biurtu gura ba'dogu, bere erabillera ezin zabaldu geinke, TZA atzizkiaren antzera? TZA'k "arritza", "ondartza" lango adigai zeatzak adierazoten ebazan, eta gerora asi zan "Gizontza", "Zuzentza", "zaartza", "jakintza" bezalako zeazkabeko gogaietan azaltzen. GIZADI bera be bearrezko jaku "humanidad" itzultzeko, "gizarteria" "muchedumbre" bai-da. Norbaitzuek EUZKADI berbea zearo zapuztu bai, baiña "Gora Euskal Herria askatuta" ta "Euskal Herriko Ezkerra" esan bearrean, bada-

EUSKAL ASTEA

EUSKAL ERRIEN IZENAK

Eskier, ziartu nago, gutako bakotzak norbere erriaren izena dakiala: ez da gauza zailla. Alan eta guztiz be, badirudi azkenaldi onetan norbaitzuk geren buruak naaspildu gura dabezala. Euskaltzaindiak erri-izen batzuek tajutzeko erabili dauan erizpideari ezegokia deritxat. Zer izpidez (errazoi) baliatu dira ZESTOA, GALDAKAO, ARAMAIO, LEIOA, LEMOA, BILBO, EZKIO, LAZKAO onartzeko? Benetako euskal sena daben deikunak (denominaciones) onokoxeok dozuez: ZESTONA, GALDAKANO, ARAMAIONA (ARAMAYONA), LEJONA (LEXONA), LEMONA, BILBAO, EZKIOGA, LAZKANO.

Kalean jendeak leenbizikoak sarriago esaten dauazala?

Bai, esan bai: "Berastegi" esan bearrean "Beástei", "Durango" - "Duungo", "Lekeitio" - "Lekitxo", "Ibarra"

orrreitakoek, baiña idazterakoan au ezin-onartuzkoa izaki; ori izkera da, ez idazkera.

Bestalde, zenbait erriri alperriko "E" bat geitu dautsoe: Uztarroze, AzkainE, Uztarroze eta Azkain esan bearrean (itz-jatorria Aitz-gain litzake); Jean Baptiste Elissanburu'k berak be E barik erabillan.

MAULE gaitzetsi bage, LITZARRE be ondo dago.

Zer esan IRUÑA ta GASTEIZ en gorabeeran (Batua sorkeran IRUINEA erabillan)?

Orreik biak euskeraz betidanik IRUÑA ta GASTEIZ izan dirala.

Txomin Garmendia'k ederto diñoanez, euskal senik dauan edonork "GaZteiz" oguzi edo aoskatuko dau. Lino Akesolo zanak erakutsi ebanek (bera be euskaltzaiña zenduen), irakurgai, testu ta idazki zaar guztietan IRUÑA ageri da beti. "Iruñea" sekula ez, edo bein bakarrik, zeaztu daidan: inesiboan azaltzen da, "amaikEan", "ankEan", "eizEan", etabar esaten dogun legez (idatzi ordea, bakar batzuek baiño ez dabe egiten).

Euskaldunoi gure uriburuon izenak aztutzen ari jakuzalala.

KANPOKO ERRIEN IZENAK (eksonomastika)

Aal dala, bertako izenak erabili bear geunkez: ENGLAND "Ingalaterra" baiño egokiago litzake beraz; FRANCE be ondo legoke, baiña PRANTZI'k be tradizio andia dau. Dana dala, azkenengo era au itza AOSKATZEKO modua litzake, idazteko aukera egokia baiño.

"Alemania" dalakoarena are argiagoa da. "Alemanak" berez ez dozuez "deutsche" guztiak, antxiñako angoleiñu bat baizik. Beste izkuntzetan "niemitz", "tedesco", "German" langoak erabilten dabez, eta

"alemán" itxurakoak aldiz, españeraz, prantzeraz eta portugaleraz. Erarik egokiena, orratik, "Deutschland"tik eratorritako DOIXTERRI zein DOITXERRI da.

Adibide geiago aztertu daiguzan:

Españeraz "Moscu" esaten dala-ta, zergaitik euskeraz "Mosku"? Italieraz MOSCA, portugaleraz MOSCOVO, doixteraz MOSKAU, ingleraz MOSCOW... Eta bertako berbetean MOSKVA; azken au dozue egokiena, Arana'tar Sabin'ek aditutera emon ebanek; Krutwig'ek orren antzekoa aurkezten dau, MOSKOA alegia.

Bardin jazoten da "Varsovia" berbagaz... Kutsu "internazionalista" emon naiean, V'z idazten dabe; baiña ori ez a aberriartekoa (internacionalista), españarra baizik. Ingleraz WARSAW, doixteraz WARSCHAU, ta bertako izkuntzan, erabilgarriena beraz, VARXAVA.

Elhuyar'ek erexpide okerrez... AndaluSia, AragoA, AsturiEs, Saudi Arabia diñotse. Zuzeneko eran onan litzakez: AndaluZia, AragoI (ziurrenik Arangoi'tik etorria), AsturiAs eta SaudiTAR Arabia.

Alan-da guztiz be, Euskera Zaarrak itz batzuk egokiturik ba'daukoz, ez legokez txarto: Sivilija, Gaztela, Akis (Aix), Akize be esaten dogularik; Burdal, Madril (baiña MADRID'ek gurean tradizio zaarra dauko), Erroma, Errusi... Azkenengo itz au garbia da; bertako izkuntzan ROSSIA (RASSIA aoskatuta) baita, ta ori gatx egiten jake euskaldunik geienai.

Jakiña NEW YORK eta CABO DE BUENA ESPERANZA esango dogu, "Nueva York, York Berri" ta "Itxaropen Onaren Lurmuturra" gatxetsirik.

Leen aitatu dodanez, "irla" barik UGARTE onartu bearrean gara.

"Península" UGARTEKI geunke (doixteraz HALBINSEL, "ugarte-erria").

Amaituteko, onoko auxe esan gura neuke:

-TAR atzizkia jatorria adierazoteko erabilten ba'dogu, atzizki au guztiz egokia dogu abizenetarako, onakook kontutan arturik:

1.- Pluralean betidanik erabili da: Agirre'tarrak, e.a.

2.- Euskal abizenen jatorria baserrietan da, beraz abizenak berez tokitasuna adierazoko leuke.

3.- Erriak aintzat artu dau jobera au: Aranbarri'tar Kepa, e.a.

Etxaburua ta Agirre' tar Asier'ek
Teknika-lana Oliver Faller'ek

(alkarrekaz) erako itzak badira, baiña euskeraz ez dogu "asanblatu" Iango berbarik be. Dana dala, "asanblada" lako berbok bultza ta onartuteko, asikera artan bedere, erriketa edo politika arrazoi esanguratsuak izan zireana danok ongi baiño obeto dakigu, "batzar" berba esan barik, beste eleren bat asmatuteko asmoa artuak bai-egozan. Beste orrenbeste jazo jaku onoko berbakaz, orain erderazkoa nagusitu-arazo dabelarik: bularrazurra-STERNUM, ESTERNOI; iztarrazurra-FEMURRA; atezu-TENTSIO; erstura-PRESIO.

UGARTE guztiz ezaguna, diñoenez, "entrambasaguas" (!) a; Azkue'k berak "isla" adierazoteko ezin-egokiagoa eritxon. Batuazko IRLA dalakoari ordea, "isla" barik, "lugar donde nacen varios manantiales" esangurea damotso, Lhande'k bezelaxe. "Isla" esanaiean ostera, zalantzagarri deritxa (itaun-ikurrak iminten dautsoz), ta ganera, oso gitxi zabaldua. UGARTE berba erabat egokia ta argia jake euskaldun geienai "isla" esangurea adierazoteko, ta Azkue'k berak be esanai onetan erabilteko aolkua edo onua damosku. Beraz, IRLA barik, Azkue'k UGARTE berbea zabalduazo gura eban.

Orain batzuren batzuek SENDAGILLE berbeari, "médico" barik, "curandero" esangurea damotsoe, baiña ori adierazoteko betidanik PETRIKILLO erabilli dogu.

ADITZAK

Euskalkietan bizirik diran adizki eurrez batuaz nekez entzuten doguz, eta aditz oneik zabaltzea lagungarri litzakigu. Ala nola:

– Bizkaierazko "EROAN", OI'ren esanaikidea dogu, baiña batuaz ez dogu ikusten. ESAN DAROAGU = ESAN OI DOGU. Euskerea OSOTU egin bearrean gara, ta, osotu-aala, ABERASTU.

– ILGO baneu'ri (si lo matase), orain-kutsu andia-go emoteko, ILTEN BA' NEU bere erabilli leiteke.

– Latíñean lez, euskeraz be, EGIZU'ren ondoan EGIKEZU erabiltea zillegi jaku, gero-kutsua adierazoteko.

– ZaituzTETE aditz-amaia zearo arrotza da euskeraz. Ori barik, zaituzTEE (Oñatibia'tar Yon'en irakasbidean) naiz zaituzTE (Bilbao'ko Izkuntza Eskolak onartua) erabilgarri dira.

– IRAUTSI, IÑON adizkerak edatu egin bear geunkez: Esaten dautsut = BADIÑOTSUT = BADIRAUTSUT.

– ERAGON, "ekin"en esanikide dozue: "Bearrari ekiten dautsat" = "Bearrari DARAGOIOT". Txorie-ri'n "murmurar" esanaiaz erabilten ei dabe.

– Zubererazko "EZAN" baldintza-erari be tokia eskiñi bear geunskio, beti "EDUN" baldintza-ereaz jar-

dun barik, alegia: "Ekarriko ba'neu" = "Ekarri BA'DEZAT, EKARRI BA'NEZA". "Sendagilleak aurra senda al BA'LEZA" modukoak Egoaldean be erabilten doguz, bardin "Aita etorri BA'LEDI lako aditzok.

Aaleraren gorabeeran be argibide apur bat emon gura neuskizue, gipuzkera osotuan idatzitako atal omen bitartez:

"DEZAIKAKE" ala "DIEZADAKE"?

Euskerazko aalera, bizkaieraz ezik, "EZAN" zuztarraren bitartez egin oi degu. Bizkaitarrek "EGIN" sustraia erabilli daroa, "neio", "neiko" ta era artako adizkiak sortuz. Orain, EZAN-adizkiak aztergai arturik, orra sortzen zaigun arazoa. Zer atzizki ditugu zuzenak, onakook?: "esan dezaizuket, dezaidakezu, dezaigukete"...Ala emengo auk?: "esan diezazuket, diezadekezu, diezagukete". Leenbizikook gipuzkera ta euskera osotuan erabiltzen ditugu. Bigarrengook, euskara batuan.

Euskal joskera gogotan artuz, "dezaizuket" bezalako adizkerak dira ene uste apalean egokienak. Zer dala-ta?

Adizki oien erroa EZAN dala esanda gaude. "El lo puede hacer", "Arek egin dezake" dezute: D, oraiñaldiko morfema; EZA, EZANdik eratorritako atala; KE, aaleraren ezaugarria, bizkaitarrek maiz erabiltzen ez dutena: LE(G)IKE ta NE(G)IKE baiño, LEI ta NEI esan eta idatzi naiago dute.

DEZAKE nor-nork-era orretatik DEZAIKAKE, DEZAIZUKE zer-nori-nork erara erraz ere erraz iritxi gindezke, ara:

	NOR	AAL	NORK
Ura	deza	KE	0 Arek

"Dezakoe" ostean, "dezaloke" erabiltzen dugu. 0, ari alegia, datiboa danez, predatiboa erabiltzea naitaezko zaigu. "Esan dizut, datorKlo, zalo, dabilKlzu, dagoKIk diñoguz, eta ez "esan dzut, datorro, zao, dabilsu, dagok". Orregatixe degu zillegi "dezaldake", "dezalzuke" ta "dezalguke". Batuak "diezaloke" ta "diezaleke" darabiltza, gero "diezaEdake", "dieza(zuke" ta "dieza0guke" erabilliz. Predatiboa ez al litzake or guztiz erabilgarria?

Garrantzizko bigarren arazoa: erroa EZAN izanik; orainaldiko izkia, D; iraganaldikoak N, Z, GEN, ZEN dirala... Zer dala-ta "I" ori tarteratzen dute? Zertarako "dlezaioke", genIezazuke" idatzi ta esan, "dEzaioke" ta "genEzalzuke" ostean? Naaste au dala-ta, orain jende askok ez du aalera-adizkerak egoki esaten asmatzen, eta ez erabilli naiago ditu. Zergatik aditzok egoki erabilli ez?

EKINTZAK: 1994

Gabon Jaun-andreok:

Oikoa dan lez, urteko Batzar onetan, joan dan urteko ekintzajakiñerazoko datsueguz.

EUSKAL IKASTAROA

Lengo Urrilla'n asitako euskera-ikastaroa betiko kopurukoa izan da, eta au guretzat pozgarria da benetan, ainbeste urte euskerearen alde emonda gero, ikasleak zintzo-zintzo datozkigula ikustean.

EUSKAL ASTEA

Aspalditiko oitureari jarraituz, 1994'ko Azilla'ren 14'tik 18'ra, Bilbao'ko Eskolapiotarren ikastetxean, gure oiko Euskal Astea ospatu genduan. Ona emen, izlarien izenak, eta erabilitako gaiak:

14'gnean	Asier Legarreta Egaztien mundua
15'gnean	Idoia Otaegi Aizpurua Ezkubide buruzko gaiak
16'gnean	Enrike Zabala Etxebarria Mezubideen mundua
17'gnean	Asier Etxaburua Agirre Euskera Aurrerapideetan
18'gnean	Iñaki Prieto Madariaga "Kresala" elebarriaren azterketea

Gai jakingarriak emondako aste orretan. Esan dagikegu, entzuleak erantzun polita emon dautsela itzaldiai. "ZER" gure illerokoan agertuko dira erabillitako txosten guztiak.

Eta bioakiez Eskolapiotarrak, gure eskerrik zintzoenak, ikastetxeko areto txukuna gure aukeran ipintegaitik, gabeko 8'tatik 9'tararte.

IPUIN-SARIKETA

Gabonilla'n aurkeztutako ipuin-sariketea, aurtengo Urtarrilla'n epaitu izan da. Aurkeztutako lanak goi-maillakoak izan dira, gaia, euskerea, eta idazkeregaitik. Batzutan zailla izan yaku irabazleak bereiztea. Ona emen irabazleak:

1'goa	Goikoetxea'tar Iñaki
2'gna	Arrinda'tar Anastasio
3'gna	Bergaretxe'tar Juan Jose
4'gna	Legarreta'tar Asier

Sariak oneixek izan dira:

40.000 - 30.000 - 20.000 - 10.000 laurlekokoak

EGUTEGIA

Urtero lez, aurtengo egutegia atondu eben gure erakunde-

ko lagun batzuk. Urte onetakoa, iñoizkorik txukunen eta argien agertu da. Aleak gura dauzanak, eskatu BBK'ko idaztegiatan.

"ZER" ALDIZKARIA

Betiko leloa erabili bear dogu, alde guztietan ikusten dogun Bizkai'ko euskereari emoten dautsoen ardura-eza ta zapuzkeriagaitik. Urtero lez, aurtan be erostarizat agertu bear dogu.

Euskeraz jabetu diranak, Bizkai'ko gure euskerearen "genocidio" edo erri-erailketaz jarraitzen dabe. Arazo onetan, baiña, negargarriena, euren euskerarearekiko bizkaitarren txepelkeria ta ardura-eza da. Beste urtebete igaro da, eta Bizkaiera gero ta eriotzatik urrago. Ainbeste bidebagekeri ta zentzunbagekeri ikusita gero, nik ondorio auxe ataraten dot: Euzkadi'n asko aldarrikatzen da euskerearen alde, baiña aurdurabakotasuna jaun eta jabe egin da. Benetako maitasun eta zentzutasuna ez dira iñondik agertzen.

Baiña gure erakunde onek bizirik iraun dagian artean, "ZER" ataraten aaleginduko gara, eta gure abotsa aditzen jarraituko be, gaurko egoera salatuz.

Eta beti lez, Olazar'tar Martiñ'en zuzendaritzapean argitaratzen dogun aldizkari oneri, euskera bizi ta errikoiaz idatzita, bialdu zeuen idazlanak.

LIBURU-AZOKA

Aurtan be, tartekoak izan gara, Gabonilla'n Durango'n ospatzen dan Liburu-azokan. Gure salketak gitxi gora-beera beti lez izan dira.

Esan bearrean naz, baiña, oraingo lekua ez dala egokia aurkezten diran ainbeste idaztientzat, asko ta goi-maillakoak diralako, baita ikerleen kopuruagaitik batez be. Gure ustez, azoka onen arrakastak gora egin dagian, ezinbestekoa da beste leku egokiago bat aurkitzea.

LAGUNTZAK

Gure arpedunak beti lez laguntzen jarraitu dauskue urteko arpide-sariaz, eta auxe da izan be, geien ederresten dogun laguntza, euskaltzaleen biotzetik datorkigulako. Eskatzen dautsegu baita be, nagikeria alde batera utzita, aurtan be zuen laguntzak ez dakigula uts egin.

Ezin dagikegu aipatu barik utzi, Bizkai'ko Foru Aldundiaren Kultur-saillaren diru laguntza gure egitekoak burutze-ko. Eskertzen dautsegu baita be, BBK'tik eta Bilbao'ko udal-letik lagundu dauskuenai.

Besterik ez, Jaun-andreok

Zubiri'tar Iñaki

ASIER ETXABURUA

Asier Etxaburua izan gendun eguenean izlari Euskal-Astean eta bere gaia "Euskerea aurrerapidean jartzeko aolku Batzuk".

Iñaki Zubiri "Euskerazaleak Alkartea"ren Len-dakariak egin eban Asier gaztearen aurkezpena: Euskerezaintza Euskerearen Erri-Akademian Kideko izaten dogu Asier eta Euskereari buruz oso arduratuta ikusten da gazte au.

Euskerearen aurrerapena da beronen ardura bizi-bizi bat. Euskerea mailla guztietan erabillia izatea da guztion gurari bizia eta orretarako egiten dogu lan. Baiña gaurkoz ikusten dogun jokerea auxe da: Elebitasuna sartzen doala toki guztietara, naiz erri-maillan naiz Ikastetxe Nagusian, baiña elebitasuna, galtzea da len euskera utsa erabilten izan dan toki edo mailletan. Ori geien erri-maillan ikusten dogu.

Euskaldun-euskaldunak izan diran erriak gaur elebitasuna erabilten ikusten doguz. Orretarako bultz egiten dabe gure artera sartu diran erdeldunak eta euskal-zaletasuna galdu daben erritar askok. Ezin ukatu, ostera, euskerearen erabilte ori urritu egiten dala eta gure izkuntzaren gaiso ori osatu egin bear dogula, euskaldunak beti euskeraz egiten alegindu eta gure artean diran erdeldunak euskerea ikasi dagien bear-izan bat sortu bear dogu.

Aolku oargarri asko emon ebazan Asier'ek arlo onetan, naizta idazki labur onetan dana ezin agertu.

Itzaldiaren azkenean alkar-izketa luzea ta beroa sortu zan eta ondoren Solozabal'dar Paulin olerkariak bertsoz goratu eban euskaldunak bear dogun euskal-zaletasuna.

DEIA 94-11-18

JAKINTZA-ARTEAN

Asabagandik artu genduan izkuntza zoragarria, gure mendiak eta zelaiak loratu daben bitxia jakitun asko arritu dozuz, ain zara eder-zalia, euskaldun itza euskerea da argitasun emoillia.

Asier gazte, Ibarratarra, arduraz zabiltz lanian, zuk maite dozun erri bizitza goraldun nairik izkuntzan; aurrean dozu gizadi on bat euzko zelaien tartian, jarrai jorratzen, aspertu barik euskera jakintza artian.

PAULIN

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratze-ko erea. Etixerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dau-tzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 2.000 pezeta di-rala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colón de Larreategi, 14, 2º, eskola. 48001 BILBAO.

Eskerrik asko urtero zintzo-zintzo ordaintzen dozuen guztioi.

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

ALBISTEAK

BIZIA MERKE

- Batak bestia il dau.
— Nun?
— Madril'en.
— Nolan?
— Eztabaida negargarri baten ondoren. Ildakoa 45 urteko eskale bat da, M.J.
— Eta, nor il dau?
— Beste 29 urteko eskale gasteagoak, kutxiloz il dau.
— Zergaitik zan burruka?
— Nork beingañetik dirua atrapau.
— Zer diru?
— 100 (eun) pezta.

BIDE BERRIAK BILLATU



Vida Nueva, 4-II-1995

- Bide berriak zertarako?
— Ezkontzako loturatik askatzeko.
— Dibortziñuak ugaritzeko?
— Ez, ori olan be ez.
— Orduan, zer?
— Elizak ezin dau lotutako ezkontzarik askatu.
— Aberatsen ezkontzak askatzen dozak, ba...
— Elizak egiten dauana auxe da: Ezkontza lotu gabe dagoela erakutsi.
— Ez al da berdin?
— "Jainkoak, batu duana, ez dezala gizonak banatu".
— Eta, zer?
— Ba, orixe. Elizak erakutsi bear dau, batu gabe dagozela... Eta orretan billa bear dira bide barriak...
— Eta, nork esan dau ori?
— Ratzinger Kardenalak, berberak.

JIDDU

- Zer izen dok ori?
— Gure dotriñako mutikoa dok.
— Ruanda'tik etorri dok, ala?
— Mutikoa bertakoa da; izena berriz, Indiakoa.
— Bataiatuta al dago?
— Ez, oraindik ez.
— Ori, oitura biurtuko da.
— Berak aitortza egin nai dau eta Jauna artu beste bere lagunekin batera.
— Eta, zergaitik ez ditu egiten?
— Sakramentuak artzeko, lenengo bataioa artu bear dalako.
— Eta, bataioa artu barik, ez al dago besteak artzerik ala?
— Atletik'aren batzarretara joateko, aurretik sozio egin bear dozu eta orduan, txartela eskuetan, joan deikezu; bestela, ez.
— Nola joango nok, ba, sozio izan barik!

- Elizan be berdin: Lenengo sozio egin, bataioa artuta eta gero, geroke eskubide guztiak.
— Jidduk ere ori egin bearko dau.
— Bai, bestela amen dabil etxetik kanpo bezala.
— Baña, martxa onetan, ez dakit kristiñauak ez ote diran jokoz kanpo geldituko...!
— Jainkoaren laguntza bearko dogu.

ADAN ETA EUSKERA

- Orain eun urte esaten eben, Paradisuan Adan'ek euskeraz egiten ebala.
— Txo, txo, ez eik orrelako iñuxentekeririk esan.
— Ez dira iñuxentekeriak.
— Zer dozak, ba?
— Orain eun urte ziur-ziur sinisten eben gauza da.
— Zer uste eben ba?
— Ez eben Bibliarik ondo ulertzen.
— Zergaitik ez?
— Jesus'engandik Adan'era bitarte orretan ez eben uste 4.000 urte baño askoz geiago pasa ziranik.
— Eta?
— Gaurtik ara, 6.000 urten, eta baekien garai aietan Euskera bizi zala, indoeuropeo eta semita berbetak baiño zaaragoa dala.
— Ez izango, ba...!
— Bibliak ori esaten ba'dau, gauza garbi dago: Adam'ek nai-ta-nai ez, euskera erabilli bearko eban, bera dalako izkuntzarik zaarrena.
— Baña, Bilbiak ez dau ori esaten.
— Ez gaurko egunez beste iñork be. Gizona zaaragoa da eta euskalduna be bai. Eta orretan dago kakoa eta korapilloa: Eun urtetik ona, eta euskerari buruz ori esaten eben gizonak ezagutu ez dabezen, margoz eta marrazkiz betetako leize pilloa topa dabez Euskalerriaren inguruan.
— Eta, zer esan nai dau orrek?
— Arazoa ez dala Jesukristo aurreko 4.000 urtekoa, asko zaaragoa, baizik... eta, beste aldetik, berriz, Bibliak ez dauala orrelakorik esaten.
— Bai, bai, ulertzen dot, orain eun urte ez zan, gure antxiñatasuna ezagutzeko, izkuntza beste biderik... Izkuntza eta besterik ezer be ez.
— Eta geroztik Biblia bera ere obeto ezagutzen dogu eta ez dau orrelakorik esaten.
— Gogoratzen naiz gure autzarroan zer esaten zigun abadeak astuari buruz.
— Zer esaten zuen?
— Astoak zergaitik dituen belarriak luze.
— Eta, zergaitik?
— Adam'ek ipiñi eutsezan animaliei beuren izenak; gero-ra, galdetu eutsen ia gogoratzen ebezan. Guztiak ekien beu-



ARGIUNEAK

LANPOSTUAK ETA EUSKERA (DEIA 1994-XI-I5)

- Joan dan urtean (1994) ia zazpireun enpleguak ez ei dabe bear eben Euskerazko examiñarik gaintitu?
- Zer, ba? Ikasi dezatela.
- Bai, baña, diñoenez, euren lanpostuak alda bearoko debez.
- Or konpon, Mari Anton.
- Ori, ez da bizi-lege ona. Euskeraz txikitatik entzun ez dabenak, gero zailtasun eta neke asko dauz euskal berbeta ikasteko...
- Geuk be erderaz ikasten dogu.
- Erdaldunetzako Euskera oso gaitza da, pentsa-moldea desberdiña dalako euskeraz eta erderaz...
- Ori bai: Gure Aitan, "Zeruan bezela lurtean ere" esaten dogu eta erdaldunek, berriz, alderantziz: "Asi en la tierra como en el cielo".
- Zailtasunik aundiena orixe da; baña, ori naikoa ez dala, beste gañontzeko zailtasunak ipiñi deutse Euskerari gañean eta sekulako Hatzez bete dabez orri guztiak...
- Bai, baña, alan agindu dabe ta...
- Euskera erreztu bearrean, zaildu, gaiztotu... eta aizke-nerako guztiok aspertu, gogaitu... Euskeraren aurkako arerio-pilla sortuz...
- Ori be, alan da.
- Zer zeregin ederra... Orretarako jendearen dirutxuak, geureak ere bai, txautu, alperrik gastau...

SAN MARTIN TXIKI ETA JENTILLAK



- Kristiñau erriak ez eukan garirik.
- Nere amamak esate eban ze, kristiñauen gariak jentillei ostutakoak zirela.
- Ostutakoak? Nolan ostu?
- San Martin Txikiak apostu bat egin ei eban Jentillakaz.
- Zer apostu?
- Nork saltorik aundien egin gari-tontor baten gañetik.
- Norena zan gari-tontorra?

- Jentillena; kristiñauak ez eukan garirik.
- Eta, nork irabazi eban?
- Jentillek erre. San Martin Txiki bota aundiagaz joan

zan eta salto egitean gari-tontorrean erori... eta botak gariz bete...

- Gariagaz zer egin ba'ekian?
- Ez, baña, arin-aringa iesi joaila, jentil iñozo batek diadar egin eutzon:
- Balekie egingo leukie,
tonto-lapikoa,
orri erortean, garie;
orri irtetan, artoa... Ja, ja, ja...!
- Oraindik be, barrez egondo da...
- Orrela jakin eben garie eta artoa ez direla batera erreit.

ATZO EZ DA GAUR

- Eztropozo eta beatz-topo egin dau Markeliñek kalean eta aldamenetik seiñarrak:
- Au atso baldarra!
- Atso baldarra?
- Lenago ez eustazun ori esaten.
- Zer esaten neutzun, ba?
- Onek kale zantarrak! Neuk esango deutsot alkatari, neure aingeruentzako kaliak konpontzeko.



NEURRI DESBERDIÑAK

- Izekok Gabon-aparian ardo-basoa erauli dau maindere zuriaren gaiñaera. Esku beatza ardotan buzti eta belarrian ikutu ondoren ekin gau pozik:
- Alegria, alegria...
- Bere illoba Mikeltxok, uste gabeen, beste orren beste egin dau beste ardo-baso bategaz eta izekoak:
- Nora begira ago, tonto-lapiko ori!





— Lau urtez eta askatasunaren bezperetan il zan.

—Izen gatxa eukan abade orrek.

—Ez, ez eukan izenik, zenbaki bat besterik. Auxe: 26.147 eta 34 urte eder. Afrika aldean mi-xiolari izateko prestakuntza egiña eukan; baña, Dachau itxituran topa eban bere Afrika eta maitasun paregabea nun agerturik.

— Laister ikusiko dogu aldetan?

—Bidean doia.

IÑAUTERI ETA ARATUSTEAK

—Aita Donosti kaputxino famatua zan.

— Berak bildu ebazan makiñatxu bat kanta.

Errietako kanta-bilduma egin eban.

—Danetarik dagoz an, Iñauterienak be bai.

—Bizkaia'n, Aratosteak.

—Naparroa'ko Ituren eta Zubietak emoten deutse asiera euren Ttunttorroekin.

—Illebete bai, gitxienez. Ez dagoz beti lo... Zergaitik?

—Neuk auxen entzunda daukot: Lengo garai zaarretan Frantzia'ko Landetara joaten ei ziran gazteak lanera, arbolak botatzera, neguaren biotzean, landarak lo dagozela; eta orregaitik aurreratzen ebezela Iñauteriak eta aratosteak.

—Yoaleak gerrian, naruz jantzirik eta ttuntturro luzeak buru gañean; eskuan, berriz, animali buztana aizea astintzeko.

- Noizkoak ote dira jantzi orrek?

—Gizona eiztari eta eizetik bizi-modua ateraten ebanian, orduan jazten zan animalien antzera larrukiz eta mozorroz.

Zergaitik animalien antzera eta ez gizon antzera?

— Eizara edo kazara dijoanian animali jazkeraz errezago inguratzen da animaliangana.

— Alan dirudi.

—Beste aldetik, berriz, aztikeririk ez jasotzeko.

—Begizkoak, ala?

—Aztiak irudiari egiten dion kaltea, irudiaren jabeari egiten deutso. Orduan, iñork ez dau norberen irudia emon iñori, ortik kalterik ez jasotzeko.

—Eta, eiztari eus-

kaldunak kobetan zegoezan animali irudiei egiten eutsen aztikeria?

—Irudiak jasotako kaltea, mendiko animali biziak jasoko eban.

— Orduan, badakit zergaitik ez dagon kobetan gizakien irudirik? kalterik ez jasotzeko.

—Badagoz irudiak, bañan mamaorroz edo mozorroz jantzita eta ortik sortzen dira karnabaletako mozorroak...

—Ez diraz, arranea, atzo goizeko gauzak!

ARATUSTEAK

— Aratustea, aragi uztea izango da.

—Garizuma zan aragi uzteko garaia.

—Eta, penitentzia egitekoa.

—Bai, eta aurretik festak egin.

—Karnabalak, aratusteak, iñauteriak...

— Berrogei eguneko aragi-uzteari Austerre egunean asiera emoten jakon; Austerre aurreko astea zan karnabal astea.

— Eta, zer ziran Gizakunde, Emakunde eta Orokunde egunak?

—Austerre aurreko iru eguen edo ostegun. Gizakunde egunean emakumeak egiten zion gizonari konbita; Emakundean, alderantziz, gizonak emakumeari; Orokundez, bataak besteari.

—"Ostegun gizen" bezala.

—Eta Otsaliko'ren antzera. Orein irurogeita amar urte ibilia naz Gipuzkoa'ko Goierri aldean "Otsaliko"ren eskean, onela kantatuz:

Otsaliko Otsaliko
nik otsoa bizirik ilko
Okela bat eta okela bi
nere burruntzie bete bedi.

—Okelea eskatuten genduen?

— Okelea, urdaia, odolosteak, txorixuak... burruntzian sartzekoak.

— Orregaitik izango zan Ostegun Gizen...

—Auskalo.

Bartolo Arropaingo



ren izena, baña astuak ez. Aztu egin eban izena eta Adam'ek belarrietatik tiraka esan eutsori: Ori dok ire izena, Astua.

—Ori bai dala kalabazan sartzekoa.

ODOLA MEETZEKO



—Negua suton doan, naikoa jan eta edan...

—Lana neurrian eta mokau goxoa sarri-sarri...

—Eta txarrikia ugari.

—Bai, ba, famili bakoitzak eukan txarritxu bat kortan.

—Baserrietan bat baño geiago... Eta, gero udaberri aldera agertzen geranean,

orduan, odola meetu egin bear.

—Garizuma zertarako zan, ba?

—Odola meetzeko be bai. Izan be, urte osoan txerrikia jaten zegoen arraingabeko errietan...

—Bearrezkoak baraua eta aragi-ustea edo bijilia.

—Berrogei egunez barau eta aragi-ustea, ori be, askotxo zan.

—Baña, bai gorputzei ondo etorri...!

—Orain ez dogu ez baraurik ez bijilirik egiten. Zertarako?

—Nork? Mojatxuren batek edo...

—Barauak betetzen doguz zeatz-meatz.

—Noiz?

—Zaartzaroan eta danak batera; medikuak ipintzen gaitu neurrian: ez jan eta ez edan. Ordez, "regimena". Bearko.

—Ori dok, ori ederra!

KRISTIÑAU BATASUNAREN ASTEA



AITA SANTU IBILTARIA

—Pillipinetan be izana dogu.

—Sekulako jendetza bildu jako inguruan.

—Lau milloi be bai.

—Sekulan ez dau orrelako jendetzarik aurrean ikusi.

—Gantxua, amua, arpoia... orrek badau arma sekretaren bat.

—Espiritu santua ez ba'da, zer ote dok?

ZIORTZA BIZIRIK



Vida Nueva, 4-11-1995

—Ziortza aurrera doia eta pozarren dabil Aita Patxi.

—Bai, txo. Nai dan beste jende datorkio bertan bizitzeko.

—Oraintzu etorri dozak batzuk; baita abade napar bat be.

—A, bai, Jesus Mari Hernandez Basurko. Ezaguna dok.

—Nundik ezaguna?

—Aldizkarietan idazten eban orrek.

—Abade eta periodista?

—Danak laga eta praille sartun dok. Lenengo Oliva'ra eta gero andik Ziortza'ra bota dabe.

—Bai, baña, zaarra izango dok...

—Ez, ba, 45 urteko gizon gordiña. Zortziraiño eldu dozak Ziortza'n.

—Orduan, Aita Patxi zoratuta ibilliko dok...

—Pozaren pozez dabil. Izan be, pakea eta gentza billatu nai mundu onetako ainbeste zarateen artean...

DACHAU

—Martxoaren 2'an betetzen dozak 50 urte a il ezkeroz.

—A, nor da?

—Engemar Unzeitig abadea.

—Nun il da?

—Alemania'ko Nazisteen Dachau deritzan il-barnetegian.

—Zer egin dau pekatu? "Erregearen txakurra urkatu"?

—Polako eta abade izatea zan aren pekatu.

—Eta, zer zan zorioneko Dachau ori?

—Txabola luze batzuetan eukezan preso, etenik gabeko lanean goserik eta nekeetan il arte.

—Eta, zenbat denbora iraun eban iltegi orretan?

NAPARROA'N LORATUTAKO OLERKARI BIZKAITARRA (FELIPE ARRESE BEITIA)

Euskera maite eta euskera landu dutenen artean anitz ezaguna da, gaur gorapaitn nai dutan "poeta" edo olerkari bikain au.

Ez, ainbeste. Naparroan. Bizkaitarra bait zen bera. Mingarria da, bañan euskaldnno, soilki gure esparruko euskera bakarrari lotnrik aurkitzen gara.

Erdiko euskera egiten dugunotatik, ots, Gipuzkoa-ta-Naparroa'ko euskera egiten dugunotatik, geienek ez dute Bizkaierazko edo Zuberorazko olerkari, idazle edo bertsolari-beruz ezertxo ere ezagutzen.

Eusko Jaurlaritzak du mixeablekeri galant orren erru guztia. Bai beintzat erru ikaragarri orren zatirik aundiena.

Egun batean kontatn nai nizueke, EUSKERAZAIN-TZAK Ensko-Jaurlaritzari aurkeztu zion egitarau edo programa zer-nolakoa izen zen.

Garaikoetxea zen orduan Lendakari, eta Labayen bere kultur-ministroa.

Esango dizuet, adiskide nuan Labayen orri, euskaldun guztiek lau enskalkiak aixe ikasi aal zezazketen, nik neronek begien aurrean jarri nion jokabide errez atsegiña. Manu Oñatibia, Jexux Elozegi Euskerazaintzaren idazkaria eta Lino Akesolo Euskerazaintzaren Lendakaria, uste dut, egon zirala nerekin billera artan.

Utzi dezadan. ordea, ori guztia beste egun baterako, eta itzuli nedin asirik utzi dutan ildora.

Felipe Arrese Beitia da gaur gorapaitu nai nuken olerkaria. Bizkai'ko Otxandiano'n jaio zen, 1841'garren urteko orrillaren (mayatzaren) 25'ean. Bañan, naiz bizkaitarra izan eta beti bizkaieraz bakarrik idatzi, Naparroa'rekin aski loturik agertzen zaigun gizona da. Alde batetik, olerkari bezala Naparroa'n jaio zelako, eta bestetik bere adiskiderik onena eta ats-emailerik aundiena napar bat izen zuelako: Arturo Kanpion ainzuzen.

Orra or bi gizon aundi: Felipe Arrese; Arturo Kanpion.

Arrese, Bizkai'k izen duen olerkaririk aundiena izan

zen. Bera baiño aundiagorik ez dut bat besterik ezagutzen: Lauaxeta.

Kanpion, Naparroa'k izen duen idazlerik aundiena da. Bera baiño aundiagorik ez dut inor ezagutzen.

Bizkaitar gnztiek irakurri bear lituzteke —eta buruz ikasi— Felipe Arrese'ren olerkiak. Napar guztiek irakurri bear lituzteke Arturo Kanpion'en libnruak —eta liburu oietako zatirik ederrenak buruz ikasi—.

Naparroa'tik at eta Euskalerrri guztitik kanpo ere gizon aundia dugu benetan gure Kanpion maitagarria. "El mejor narrador de la lengua castellana" zela Kanpion, esan zuen bera ere idazle bikaña zen Pardo Bazan nobelistak.

Arrese. olerkari bezela Naparroa'n jaio zela, esan dut. Elizondo'n ainzuzen: An, 1880'ean ospatu ziren euskal-jaietan. Ikns, jai aietan aurkeztu zuen olerkia. "AMA EUSKERARI AZKEN AGURRA" ipiñi zion olerki orri izen-buru. Ona bere aurreneko bertsoak:

" III da enskerea! ill da euskerea!

Betiko itxi dauz begiak...

Negar Araba. Negar Gipuzkoa.

Negar egin bei Bizkaiak...

Negar, naparrak, gure anaiak,

ta'uskaldun Frantziakoak.

Nengaz batera danok urratu

sentimentuz soiñekoak;

Eta nun dozuz, zeruko arbola

zuk zeure jantzi orlegiak?

zeure adarrak billots dakustaz,

igar, ta ezkur bageak.

Ai! Mingarria! Gaztela'ko arrak

jan dantsuz sustrai gnztia;

baita biotza, baita barruak,

azal, azur, ta mamiak".

Latiegi'tar Bixente
"Diario de Navarra"n argitaratua.

AU ERE ULERTUKO DOZU

Denpora gitxi dala, idazten dodanetik bota deuten lorarik ederrena jaso neban; aspaldiko ezagun batek zera esan eustan: ZER-eko zure itzaldiko zera iraknrri dot eta asko gustatu jat, *ULERTU* egin dot.

Nere idaztixtoak egiten asi nintzenetik ez dot gauza andirik asmatu (aintzina aurkitu ebezan Amerikak), ez eta arrian landuta ipintzeko moduko esaldirik idatzi (alakoak idazleentzat izten dodaz). Komunikatzea izan da nire asmoa eta ori gertatu daiten, batek esaten dauana besteak ulertu egin bear dau, bestela ez dan ezertarako balio. Inork ez ulertzeko idaztea gorren arteko alkarrizketaren antzerakoa litzateke eta belarri zurra daukan gor naikoa dago ni ere orretan arteko.

Pozik eta pentsakor itzi ninduan aspaldiko lagunak. Elburua lortu dauanaren poza sentitu neban. Itzaldiko gaia, naiz eta edozeinek ulertzeko moduko mailan jarria egon, korapilotsua eta aspergarria binrtu eitekean, batez ere gogokoa izan ezik. Beste alde batetik itzaldi batetik urtetzea, aspergarria izan arren, lotsagaitik, edo izlariaren laguna zaralako edo zarata ez egiteagaitik, edo izlariaren gogoia ez jeistearren bat gitxiago ikustean, naiko gatxa izaten da urtetzea. Baina paper baten aurrean ez dago alakorik, irakurtzen zagozana ez bajatzu atsegin, alde batera itzi eta kito! Nire lagun au ez da gaian aitua (ori uste dot beintzat), "erriko gizona" da, bere sentzn osoan, eta orregegaitik barrutik zera esan neutson neure bnruari: Iño! Oraingoan lortu joat! Komunikazioa sortu da! Au ez dok izan idazten dogun arteko alkarren lanaren komentario bat, irakurle batena baino!

Irakurri, ulertu eta ez jakola gustatu esan baleust. bardin-bardin sentituko nintzen, une aretan idazle "profesional" asko baino obeto sentitzen nintzen eta. Egunen baten euskal iraknrlearte arteko benetako galdeketa edo "inkesta" (Nori bururatu ete jako alako erderakadea! Zeinek irabaziko ete dau soldatea orrelakoak asmatzen!) egiten danean, ziur nago erantzun askok arritn egingo gaituela. Eta ez irakurtzen dana eta zergaitia jakitean, ez EZ dan irakurtzen eta zergaitia jakitean baino.

Zenbat aldiz entzun ete dogu: "Ez dakit ze euskeratan dagoan idatzita. ez dot ulertzen!". Sasoi baten eta gaur ere, zenbat eta gai korapilotsu eta naasiagoa erabili, obeagotzat daukaguz liburuak. Aintzinako izlariaren txistaren antzera gertatzen ete jaku:

- "Ze ondo egiten dauan berba gizon orrek!".
- "Eta zer esan dau?".
- "Ez dakit. ez dentsat ulertu, baina ze ondo egiten danan berba".

Euskera gitxi irakurtzen bada. askotan ez da izaten liburu eta ainkakoak garestiak direlako (erderazkoak merkeagoak izan arren. ez dira opari bat eta saldu egiten dira), idazlea, bere iztegi aberastasuna eta izkuntza era-

biltzeko daukan trebetasuna erakusteko erriko itz lau, erreze eta xumeetatik aldendu egiten dalako baino.

Konparaketak mingarriak izaten dira eta batez ere pertsonak eta denporea bitarteko badira. Ala ere, or doa bat: Mikel Zarate zana eta Bernardo Atxaga dana. Azken onen "Obabakoak" eta bestearen "Bilbo irribarrez", "Ipuin antzeko alegi mingotzak" zein beste edozein. Ez naz sartuko zein dan ohea esaten, ez naz ni inor orretarako, baina ziur nago nire lagunak eta bere moduko "erriko gizon" askok, etxeko euskera bestetik ez dakiena, gustorago eta gogotsuago irakurriko dabezala Mikel Zaratek idatzitakoak. Kontuz! Ez deusat besteari bere meritoa kentzen, euki dauka eta; ez nabil aituek aipatzen daben "kalitate literarioa" neurtzen beste gauza bat baino, errezagotz nler-tzea ain zuzen.

Beraz norentzat idazten da? Zertarako idazten da? Liburuak saltzeko? Barruko zeozer ataratzeko? Zerbait adierazteko? Kontua kontu, danatarikoa egongo da. Bakoitza daki berea, eta zuk irakurle nirea.

Enrike Itxasalde

OLANTXE IZAN ZAN, EZ KENDU ETA EZ IPIÑI

Bizkai'ko erritxu baten arduradun batzukaz batzarran egin neban eta erritar guztiai eskutitza, karte, egitea erabagi gendun. Baiña zalantza: Euskeraz ala erderaz?

Eurak esan eusten: -Eman euskeraz ez dau iñork leidunt. eta leiduarren ulertu be ez. Erderaz naikoa da.

Bietara eginda ekarriko dot -esan neutsen- eta gero elejiduko dogu.

Urrengo batzarrean euskeraz leidu neutsen eta gero: -Orain erderaz leiduko dogu.

Euren erantzuna au izan zan: -Ez dau zertan erderaz leidu. Olango enskerea danok ulertzen dogu eta ez da bear erderarik.

Itxasalde'k diñoan poza bera artu neban nik be. Eta orain diñotset Euskaltzaindiari eta bere bidetik doazenai: -Itzi daiguzan alde batera atxeak eta batuak eta erokeriak, eta bultzatu daigun erria euskerare erabilteko. Ori egiten ez ba'da, ba-dakigu nor-tzuk diran euskerearen iltzailleak.

Olazar'tar Martin'ek

POLITIKA KONTUAK

Egunotan "GAL" dala-ta jende sozialista ospetsuak izandakoak espexeratu dabez. Lentxo baten Mario Conde, De la Rosa ta bateren bat geiago. Oneik diruzale porrokatuak dirala-ta, bai batzuk eta bai besteek Erriari gerria estutuaz milloikada dirutzak enren banketxeetan metatu dabezelarik.

Erria goibel, itun dabo. Urduri samar ori dala-ta, "El Mundo" izparringi zitara bide dala oraindiño geiago esan lei. Lagun askok, len baten DEIA ta EL CORREO irakurten ebezanak orain eguneroko saltza-burrukatxoak "El Mundo" zaratatsuan iruntziten dabez eta, azken baten, dana ziñistu. Komunikabide egitia dala?, ezta? izan lei, baiña egiak, erdi-egiak izatekotan edota guzurra naste-mordoilloan erabilliz berein kalte egin leikez eta egin daroetz "El Mundo"n idatzi oi daben zirikatzaileek ain zuzen.

Nire auzoan be au berbera gertatu oi da ta nire lagun oneik, erdi abertzaleak izan arren, bein eta geiagotan dirauste asarre itxuraz: "los chorizos a la cárcel", Lapurrak espexera, ta baita ere itaundu zergaitik Euzkal Alderdi Jeltzaileak Madrilleko Gobernuari eusten dautson, abar eta abar.

Orrela BOST puntuko idazkitxo bat emon dautsat gasterelaz, euren burua danari. Euskeraturik darraian doaz.

BOST zio garrantzitsu oneik Euzkal Abertzale Batek iradu barik jokatu dagian gobernuko larrialdian.

1.—Euzkal Abertzaleak gara, ez Espaiñiar abertzaleak, P.P. (Partido Popular) edo Alderdi Erritarra diranez. Euzkadi'n euren burua dan Jaime Mayor Orejak be EUSKERE, geure ezaugarri beñena, bazterten dau.

2.—Diru-kontu edo Ekonomiaren aldetik astiro bada ere

gorantz goaz ludi osoan, Espaiñaldian eta obeto oraindiño gure Enzkadi'n.

Zati on baten jokuan doguz Bilbao'ko "Metroa", "Kaia-ren Zabalkunde neurribakoa", "Sestao'ko Laba Barriak"... Bizkaia'n, eta iru Erki edo Errialdeetan gentza, pake ziurrago bat egiz.

3.—E.T.A. erdi inboluzio edo iraultza au bide dala loditzen doa, pozez beterik diardu berak kastaiñak berotzen, ta K.A.S.'en bere bnruzagiek txaloka artu daroe abagune au. Kontuz gañera "bide-gogorraren" aldeleak %17 izanez irabazle urten ondoren, %12'k ez dabe autarkirik emon bildurrez.

4.—Orrela guk alegiñak egingo doguz P.P.'ko Aznartarrek oraingoz beintzat *guztiko geiengoa* lortu ez dagien. Kaltegarria litzake ez soillik Euzkadi'rentzat baita Espaiña osoarentzat ere.

Begira! Ez dagoz urrun Falangisten eta Militarren lengo bateko aldiak!

5.—Zuzentasunari itxi bear jako bere betiko arloa, daukazen bideak jarraitu dagizala iradu barik, prisa barik. Bere epaiak onartu, ta ez bultzaka arin baten epaikariak erabilli I.U. ta P.P.'k gura daben bezala.

Erri Agintaritzak (demokraziak) *Zuzentasuna* ta *Gizamailla* (Ordena) eskatzen dauz. Demokratik bagara beti bere legeak eta arauak betetu bear doguz.

Espexera Sozialisten Gizarte-zaleen buruzagiak? Joan bear badabe joango dira, baiña ez guk *gaur* beintzat bulztatuta.

Arregi'tar Josu'k

ANDONI DEUNA

Urtero bezela aurten be, ixillik, ia konturatu barik, eldu jaku Andoni Abad Deunaren jai. Igaz, Urkiola'ko mendian edurra egin eban ezker, baleiteke entzutetsuago, nabarmenago egin zala ara goraiño igon aal izatea. Argazkilariak-eta bere lana egin eben, ondo baiño obeto egin be, eta bertaraiño, Urkiolaraiño joan eziñik geratu ziranentzat bere argazkien bidez, bertako, Urkiola'ko enguruen ikuspegi ederrak erakutsi aal izatea lortu eben.

Aurton otza izan zan arren, esan bearra dago eguraldian buruz ez ebalu igazko moduan edurrik egin, beraz, oztopo aundiagorik barik iritxiko ziran Urkiola'ko tontorreraiño, oi dan legez urtero bertara urreratzen diranak.

Danok dakigunez, Andoni Deunaren eguna lurginen, baserritarren eguna da, au da, baserritarrak batez be dirala egun au ospatzen dabenak. Urkiola'ko errien inguruko baserritarrak alkartzen dira urtero, kortako eta beste mota guztietako abereak bedeinkatu eta eurekaitik otoitz egiteko.

Andoni Deuna "Zaarra" ezizenez, bertako eta inguruetatik doan jentearen eritxiz, uzta eta belardietako Zaindaria da, baita Arduraduna eta Babeslea.

Ez da aitzu bear, Urkiola'ko Santutegian, bertara doazan guztien artean milla erdi bat okil (ogi) bedeinkatuak

banatzen dirala eta auxe be, urtero bezela, urrengo domekan txarriaren zozketa egiten dala.

Andoni Deunaren jaiataz, azken egunotan jakin doguna auxe da: Ainbeste errietan gurtu eta ospatu egiten dan jai, etxeko egutegietan gorritz markatzeko eguna dala, eta Urkiola'n bertan ezeze, adibidez Garai erriko eleizatean eta Berriz'ko udalean be ospakizunak eratzen dirala.

Santutegia, ain zuzen be, baserrietako lurraldeetan kokaturik dago,beraz, Andoni Deuna lurginen Babesle eta —Zaindaria izanik, baleiteke gaur egun 2000 gn. urtearen izladan egon ta lurgintza-lanak ain beerakada aundia izan arren, badirudi adimenean aiztuten ez diran oiturak guztiz sustraituta dagozela eta erria gogo onez jaso eta ospatu egiteko prest dagola.

Auxe irakurritakoan ez dagiala inork pentsatu (batezbe baserritarrak dirala-ta idatzi dogun arren) Andoni Deunak bere mesedeak beste inori banatzen ez dautsozanik; danok gagoz bere babes eta ardurapean, ikusi baiño ez dago zelan dagozan kristau mundu guztian beretzako, bereganako gogo ona eta maitasuna.

(IZEN BARIK)

EUSKER7 Z70~LE10CK

Colon de Larreategi, 14 - 2.º dcha.
48001 BILBAO



Betidanik.

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa

Itzau begiak une batez eta
begiratu zeure inguruari.

Eraikiñak, kaleak, aurtzaroan jolasten
zendueneko lekuak, ikastegia... Ainbat
eta ainbat gauza ez dira leengoak, ez da?
Garaiak aldatu egin dira. Ezin ezetz esan.
Aiekin batera, zuk oraindik atsegin
dozuzan gauza asko be desagertu egin dira.
Urbiltasuna, begikotasuna,
zuzeneko artu-emona... Orain egiozu so
antziñako sukursal orren argazkiari.
Eta konparatu BBK'ren egungo edozein
bulego ta sukursalekin.
Ez dira ain ezbardañak.
Azkenean, garrantzitsuenak
bere orretan diraelako.
Gauza batzuk oiñarrikoak dira eta ori
ondo dakigu BBK'kook.
Garaietan zear aldatu egin gara. Jakiña.
Baiña leengo berberak gara.
Zuri laguntzeko. Eta zure alegiñaz
eta geurez onurak itzultzeko.